## 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 02 DIPUTATU NAGUSIA

**Programa:** 94 KULTURARTEKO BIZIKIKETZARAKO POLITIKA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

**Departamento:** 02 DIPUTADO GENERAL

**Programa:** 94 POLÍTICA DE CONVIVENCIA INTERCULTURAL

## SAILAREN MEMORIA

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

Aurrekontu programa honen bidez 2017ko ekitaldian zehar gauzatu beharreko helburuak honako ildo hauek hartzen zituen barruan:

1. Kulturen arteko bizikidetasuna sustatzeko proiektuei laguntzen jarraitzea eta, xede horrez, udalerri, kuadrilla eta hirugarren sektoreko erakundeentzat laguntza deialdiak burutzea.
2. Kulturen arteko bizikidetasunaren aldeko ekintzak sustatu eta inplementatzea. Halaber, errefuxiatuen eskubideei buruz sentsibilizatzeko nahiz arrazismoaren eta xenofobiaren kontra egiteko jarduerak gauzatzea.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

2017ko ekitaldian jarduketa hauek egin dira elkarbizitzaren eta kulturartekotasunaren inguruan:

**1. Udal, kuadrilla eta irabazteko asmorik gabeko erakundeen ekimenak babestea, Arabako lurraldeko udalerrietan sentsibilizazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren bidean aurrera egiteko, genero ikuspegia zeharka txertatuta.**

Arabako eta Trebiñu Konderriko udal eta kuadrillei Arabako Lurralde Historikoan kulturen arteko bizikidetza eta sentsibilizazioa sustatzeko programa edo jardueretarako dirulaguntzak emateko deialdiaren bitartez, 2017an, lurraldeko toki erakundeek 12 proiektu aurkeztu zituzten guztira (udalen 11 proiektu, eta kuadrilla baten proiektu bat), eta horietatik 11 jaso dute dirulaguntza. Proiektu horien xedeen artean aipa daitezke kulturen arteko bizikidetzarako ekintza edo planen garapena, zurrumurruen aurkako estrategiak edota kulturen arteko hurbilketa, ezagutza eta sentsibilizazioa xede dituzten unean uneko ekimenak, eta proiektu guztiek daukate txertatuta genero ikuspegia. Dirulaguntza ukatu zaion proiektu bakarrak ez zituen betetzen

### I. MEMORIA

El objetivo de este Programa Presupuestario a desarrollar a lo largo del ejercicio 2017 comprendía las siguientes líneas:

1. Proseguir con el apoyo a proyectos para la promoción de la convivencia intercultural a través de la convocatoria de ayudas dirigidas a los municipios, cuadrillas y a organizaciones del tercer sector.
2. Promover e implementar acciones en pro de la convivencia intercultural y de sensibilización sobre los derechos de las personas refugiadas y contra el racismo y la xenofobia.

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Durante el ejercicio 2017 las actuaciones realizadas en materia de convivencia e interculturalidad han sido las siguientes:

**1. Apoyar iniciativas de municipios, cuadrillas y entidades sin ánimo de lucro para avanzar en la sensibilización y convivencia intercultural en los municipios del territorio de Álava incorporando transversalmente la perspectiva de género:**

A través de la convocatoria de subvenciones dirigidas a Ayuntamientos y Cuadrillas de Álava y Condado de Treviño para el desarrollo de programas y/o actividades destinadas a la sensibilización y a la convivencia intercultural en el Territorio Histórico de Álava se presentaron en 2017 un total de 12 proyectos por entidades locales del Territorio (11 de ayuntamientos y 1 de cuadrilla), subvencionándose 11 -que abarcaban aspectos tales como desarrollo de acciones o planes de convivencia intercultural, estrategias antirrumor, así como iniciativas puntuales dirigidas al acercamiento, conocimiento y sensibilización intercultural, incorporándose en la totalidad de los mismos la perspectiva de género- y denegándose 1 por incumplimiento de requisitos de

deialdiaren betekizunak.

Irabazi asmorik gabeko entitate eta elkarteek kulturen arteko bizikidetzarako eta sentsibilizaziorako programak edota jarduerak garatzeko dirulaguntzen deialdian, 2017an zehar guztira 21 proiektu aurkeztu ziren. Horietatik 16k jaso zuten dirulaguntza, eta 5ek ez zuten dirulaguntzarik jaso, arrazoi hauengatik: batek, aurrekontua agortuta zegoelako; hiruk, ez zutelako behar adinako puntuaziorik lortu; eta batek, ez zuelako aurkeztu eskatutako dokumentazioa.

Gainera, erakundeetako bik ez zuten jaso diruz lagundu zitekeen zenbatekoaren % 100, aurrekontuko kreditua agortu eta gerakina hainbanatu egin zelako; eta beste bat ez zen onuradun suertatu, kreditua agortu egin zelako.

**2.- Lurraldeko udalerrietan kulturen arteko bizikidetzaren garapena sustatzea, honako proiektu honi jarraipena emanez: “Arabako bizilagunak: zurrumurru xenofoborik ez duen eta genero berdintasunerako eragin positiboa duen kulturen arteko bizikidetzaren alde”**

2016ko azken hiruhilekoan abian jarri zen Arabako Lurralde Historikoko Zurrumurruen aurkako Estrategia, zehazki Aiarako kuadrillako Laudioko eta Amurrioko udalerrietan eta Kanpezu - Arabako Mendialdeko kuadrillako Maeztuko eta Kanpezuko udalerrietan. Horren ostean, 2017an estrategia sendotu egin da udalerri horietan, eta beste udalerri batzuetara hedatu da: Artziniegara (Aiarako kuadrilla), Bernedora (Kanpezu - Arabako Mendialdeko kuadrilla), eta Oionera eta Bastidara (Guardia - Arabako Errioxako kuadrilla).

Horretarako, 2017an laguntza teknikoa kontratatu zen Arabako Lurralde Historikoan zurrumurruen aurkako estrategia indartu eta zabaltzeko, eta CEAR Euskadi erakundeari eman zitzaion kontzesioa, Ahaldun Nagusiaren uztailaren 18ko 280/2017 Foru Dekretuaren bitartez. Exekuziorako aurrekontua 33.050,00 eurokoa izan zen (BEZetik salbuetsita dago, azaroaren 9ko 7/94 Foru Arauak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 20.Bat.8 artikuluan xedatzen duenez), eta abenduaren 31ra arteko exekuzio epea ezarri zen.

la convocatoria.

A través de la convocatoria de subvenciones dirigidas a asociaciones y entidades sin ánimo de lucro para el desarrollo de programas y/o actividades destinadas a la sensibilización y a la convivencia intercultural se presentaron durante el 2017 un total de 21 proyectos de los cuales se subvencionaron 16, y se denegaron 5: 1 por agotamiento del presupuesto, 3 por no haber obtenido puntuación necesaria y 1 por no haber aportado la documentación requerida.

Además, dos de las entidades no obtuvieron el 100% del importe subvencionable debido al agotamiento del crédito presupuestario procediéndose al prorrateo del remanente disponible y otra más no resultó beneficiaria debido al agotamiento del crédito.

**2.-Promover entre los municipios del Territorio el desarrollo de la convivencia intercultural a través de la continuación del proyecto “Arabako bizilagunak: por una convivencia entre culturas y sin rumores xenófobos y con efecto positivo en la igualdad de género”**

Tras la puesta en marcha en el último trimestre de 2016 la Estrategia Antirrumor en el Territorio Histórico de Álava, concretamente en los municipios de Llodio y Amurrio de la Cuadrilla de Ayala y Maeztu y Campezo de la Cuadrilla de Campezo-Montaña Alavesa, en 2017 se procede a la consolidación de la misma en dichos municipios y a su ampliación en Artziniega (Cuadrilla de Ayala), Bernedo (Cuadrilla de Campezo-Montaña Alavesa) y Oyón y Labastida (Cuadrilla de Laguardia-Rioja Alavesa).

Para ello durante el 2017 se contrata una asistencia técnica para la consolidación y ampliación de la estrategia antirrumor en el Territorio Histórico de Álava, siendo la entidad concesionaria de la misma CEAR Euskadi mediante Decreto Foral número 280/2017 del Diputado General, de 18 de julio, con un presupuesto de ejecución de 33.050,00 € (importe exento de IVA según el Artículo 20.uno.8 de la Norma Foral 7/94, de 9 de noviembre del Impuesto del sobre el Valor Añadido) y con un plazo de ejecución hasta el 31 de diciembre.

Hainbat lan egin dira esparru horretan: bizikidetzaren diagnostikoak; erreferente diren agente eta entitate berriak mapatu, identifikatu eta erakartzea; zurrumurruen aurkako agente taldeak sendotzea eta haiek trebatu eta sentsibilizatzea; bizikidetzaren aldeko kale ekintzak eta ekimenak garatzea; eta lurraldean dugun kultura aniztasuna agerian jartzeko eta ospatzeko mugarri den Bizilagunak ekitaldia antolatzea azaroaren 19an.

**3.- Kultura arteko bizikidetza zehar lerro gisa txertatzea Arabako Lurralde Historikoko “Laia Eskola” izeneko ahalduntze eskolan**

Horri dagokionez, esan beharra dago arloko dirulaguntzen bi deialdietan honako testu hau erantsi zela, ekintza ildo hori bistaratzeko eta berari buruz informatzeko:

“Jende guztiak parte hartzekoak diren jarduera diruz lagunduak, Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuak intereseko irizten badie, LAIA Eskolaren urteko programazioaren parte izango dira (LAIA eskola, Arabako Emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskola).”

Laia Eskolaren programazioan bertan, halaber, kulturartekotasunaren eta generoaren gaiak landu dira, eta gai horiei buruzko hainbat tailer eta saio jaso dira.

**4.- Sentsibilizazio ekintzak bultzatzea, lurraldeko kulturen arteko bizikidetza, kohesioa eta gizarteratzea sustatzeko, genero ikuspegitik.**

Bai dirulaguntzak emateko deialdien bidez, bai bizikidetza sustatzeko eta zurrumurruei aurre egiteko estrategiaren bidez, kulturen arteko sentsibilizaziorako ekintza ugari sustatu eta garatu dira, betiere genero ikuspegia txertatuta.

**5.- Modu aktiboan parte hartzea erakundearteko foroetan; trukerako eta koordinaziorako egituretan parte hartzea.**

Parte hartzeari, sentsibilizazioari eta kulturari buruzko lan batzordearen 4 bileratan parte hartu dugu, guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko



En este marco, se han realizado diagnósticos de convivencia, el mapeo, identificación y captación de nuevas entidades y agentes referentes, la consolidación de los grupos de agentes antirrumor y la formación y sensibilización de los y las mismas; la implementación de acciones e iniciativas de calle en pro de la convivencia; y la organización del evento Bizilagunak el 19 de noviembre como hito para la visibilización y celebración de la diversidad cultural existente en el territorio.

**3.- Incluir transversalmente la convivencia intercultural en la escuela de empoderamiento del territorio histórico de Alava “Laia Eskola”**

A este respecto, señalar que en las dos convocatorias de subvenciones del área se incluyó para visibilizar e informar sobre esta línea de acción el siguiente texto:

“Las actividades subvencionadas abiertas al público en general que el Servicio de Igualdad, Cooperación e Interculturalidad considere de interés, formarán parte de la programación anual de LAIA Eskola – Escuela para la Igualdad y el Empoderamiento de las mujeres en Álava.”

Asimismo, desde la misma programación de Laia Eskola se ha trabajado la cuestión de la interculturalidad y el género, incluyéndose en la misma diferentes talleres y sesiones con esta temática.

**4.- Promover acciones de sensibilización para fomentar la convivencia intercultural, la cohesión e integración social del territorio desde la perspectiva de género.**

Tanto a través de las convocatorias de subvenciones como de la propia estrategia antirrumor para la promoción de la convivencia se han promovido y desarrollado numerosas acciones de sensibilización intercultural con perspectiva de género.

**5.- Participación activa en foros interinstitucionales, participación en estructuras de intercambio y coordinación:**

Se ha tomado parte en un total de 4 reuniones de la Comisión de trabajo de participación, sensibilización y cultura dentro del Foro para la Integración y

Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroaren barruan.

Foro horren osoko bilkuran ere parte hartu dugu.

**6.- Hirugarren sektorearekin hitz egiteko eta elkarlanean jarduteko guneak berreskuratzea, etorkinen gizarte errealitatea ezagutzeagatik eta hartatik hurbil egoteagatik aliantza handia osatzen baitute.**

ZAS sareko partaide izaten jarraitu dugu: osoko bilera bitara joan gara, eta sare horrek taxutu duen berariazko prestakuntza ekintza batean parte hartu dugu.

Bizikidetza eta Kulturartekotasunari buruzko Foru Kontseilua ere berraktibatu egin da eta egitura horren deialdi bat egin da ekainean.

Oro har, ondo lortu da proposatutako helburuak betetzea, memoria honetan zehar azaldu den bezala.

Participación Social de las ciudadanas y ciudadanos inmigrantes en el País Vasco.

Del mismo modo se ha participado en el Pleno de dicho Foro.

**6.- Recuperar los espacios de diálogo y colaboración con el tercer sector, que por su conocimiento y cercanía a la realidad social de las personas inmigrantes constituyen una gran alianza.**

Se ha continuado formando parte de ZAS, acudiendo a 2 reuniones plenarias y tomando parte de una formación específica diseñada por dicha Red.

Igualmente se ha reactivado el Consejo Foral sobre Convivencia e Interculturalidad en Álava, habiéndose realizado una convocatoria de dicha estructura en el mes de junio.

En conjunto, se ha logrado de forma satisfactoria el cumplimiento de los objetivos propuestos tal como se ha ido describiendo a lo largo de esta memoria.